

## Nazioa, kultura eta identitatea euskal literaturaren ikuspegitik: *Jenisjoplin-en kasua*

*Lorea Azpeitia Anta*

Euskal Literaturaren esparruan doktoregia UPV/EHU

### Ur-jauzi sistema

Nik neuk ere, Joxe Azurmendik bezala, sinesten dut ur-jauzi sisteman; hain zuzen ere, sinesmen horretatik abiatuta sortu zen 2019ko abenduan eman nuen hitzaldia.<sup>1</sup> Kongresuaren lema arabera, Azurmendik esan omen zuen bere ideiak norbaitek irakurtzen dituela, eta norbait horren ideiak martxan jartzen direla, eta ideia horiek ur-jauzi modura iritsi behar duten tokira iristen direla, bidean forma desberdinak hartuz. Halaxe iritsi dira, behintzat, bere ideiak nigana.

Gaur egun, euskal literaturaren esparrua ikertzen dihardut, genero ikuspegitik eta kritika feminista oinarritzat hartuta. Hasiera batean, Azurmendirengandik urrun nabilela eman badezake ere, nire ikergaian oso presente daude pentsalariaren obra zeharkatzen duten zenbait auzi, hala nola naziotasuna, herrigintza, hizkuntza eta kultura. Hori dela eta, elkarrizketa bat planteatu nahi izan dut Azurmendiren eta ikertzen ari naizen eleberrin baten artean. Nire helburua, beraz, Azurmendik nazioaz eta kulturaz egiten dituen zenbait hausnarketa gogoan izanik, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberrinari (Susa, 2017) buruzko zenbait gogoeta lerrootara ekarri, eta elkarren arteko dialektikak egungo euskal gizarteaz zerbait interesgarria esan ote dezakeen hausnartzea izan da.

### Azurmendi eta nazionalismo kulturala

Azurmendiren nazioari buruko pertzepzioan murgiltzen hasi bezain pronto, gauza bat argi gelditzen da: batetik, nozio hori ez dela era isolatuan definitzen, hots, beste zenbait elementurekin elkarreraginean besterik ezin dela ulertu; eta, bestetik, ez duela elementu politiko-administratibo soil gisa ulertzen. Beste era batera esanda, Azurmendirentzat nazio kontzeptuak gizakia, komunitatea, politika eta bilakaera historikoa ere biltzen dituela bere baitan (H. Azurmendi 2019b: 222). Nazioaren ulerkera horretan, beraz, kultura oso presente dago, hainbeste ezen Azurmendiren aburuz zaila edo are ezinezkoa den bata bestetik bereiztea. Hala laburtzen du Haritz Azurmendik bere tesian Joxe

Azurmendik *Espainolak eta euskaldunak* lanean (1992) elkarreragin hori nola definitzen duen:

Euskal kultura txikia ez ezik urratua ere badela; kultura ezin denez gizakiarengandik bereizita ulertu, finean euskal kulturaz mintzatzea euskaldunaz mintzatzea dela. Horregatik, arazoa herrien artekoa dela, komunitateen artekoa, harreman kulturalak berez ez duela problemarik ekartzen-eta, ez badatoz botere harreman desorekatuekin. Horretatik guztitik eratortzen dela kulturaren esanahi politikoa, nahi ezta ere, kultura eta politika nahastuta aurkitzen direlako. (H. Azurmendi 2019a: 264)

Nazioaren eta kulturaren ulerkera horrek talka egiten du Nazioen Ikasketen esparruko historiografian nagusi izan den korronte modernistarekin. Labur-labur, Nazionalismo Ikerketen jatorria Bigarren Mundu Gerraren ostean kokatzen da, XX. mendeko lehen erdian jazotako gertakarien ostean. Hain zuzen ere, gertakari horien ondorioz, nazionalismoaren ulerkera jakin bat nagusitu zen, «nazioaren paradigma moderno», 90eko hamarkadara arte eragin nabarmena izan zuena. Funtsean, korronte horrek nazioen izaera asmatua eta eraikia azpimarratu izan du, baita nazionalismoak modernizazio prozesuekin duen lotura ere (*ibid.*: 1). Ildo horretatik, Azurmendi kritikoa da nazioaren auzia estatugintzara erreduzitzen duten ikuskerekin. Paradigma modernoari nazionalismo modernoaren azalpenean ekarpenak egin izana aitortzen badio ere, ez du onartzen nazioaren inguruko auziak deskribapen horretara mugatzen direnik; beraz, garrantzi berezia aitortuko die nazioa osatzen duten elementu kulturalai eta naziokideek erreferentzia horiekiko dituzten harremanei (*ibid.*: 51).

Beraz, laburbilduz, Azurmendik modernismoaren oinarritzko tesien aurka egingo du, horrek nazio-estatuaren ikuspegia soilik hartuko lukeelako aintzat eta, ondorioz, horrek nazio euskalduna ulertzeko gako desegokiak emango lituzkeelako. Era berean, Azurmendiren nazioa ulertzeko modua Nazionalismo Ikerketen baitako korronte etnosinbolistara hurbiltzen da, batez ere, John Hutchinsonek planteatzen duen nazionalismo kulturalaren ideiekin bat eginez (*ibid.*: IX). Funtsean, Hutchinson pentsalariak bereizi egiten ditu estatua eraikitzea helburu duen nazionalismo politiko-instituzionala eta helburu beregaina duen nazionalismo kulturala, hots, komunitate historikoaren defentsa, birsortzea eta biziberritzea (H. Azurmendi 2019b: 217). Ildo beretik, Nazionalismo Ikerketetako teoria gehienek pizkunde literario-kulturalak mugimendu nazionalisten hasierako faseei besterik ez dagozkiela defendatzen badute ere, nazioa eta kultura hertsiki lotuta ulertzen ditu Azurmendik: «Horixe da gure kulturgintza: herrigintza, naziogintza. Komunitate baten berregintza» (J. Azurmendi 1992: 580). Ildo horretatik, Hutchinsonek, nazionalismo kulturala definitzen duenean, enpeinu berezia jartzen du elementu tradizionalak hartu eta gaurkotzeko kulturalistek jorratzen duten papera azaltzen. Nazionalista kultural horiek kultura nazionalean aurkitzen diren mito, kontakizun eta mundua antolatzeke moduei esanahi berriak ematea dute helburu, tradizioko elementu objektibo horien berrinterpretazio eguneratua eskaintzea, alegia (H. Azurmendi 2019a: 247). Halaber, komeni da azpimarratzea kultur eragile horiek, politikariak baino, hizkuntzalariak, historialariak, kazetariak edo idazleak izan ohi direla, eta beren gain hartu ohi dutela kultura folklore ez bilakatzeko erantzukizuna, tradizioaren hautaketa bat eginez, etorkizunera begira

alda daitezkeen elementuak eta atzean utziko direnak bereiziz (H. Azurmendi 2019b: 218). Azurmendik hala ulertzen du dinamika hori:

Komunitate batek dauzkan naziotasun ezaugarri objektiboak eta haren kontzientzia nazional historikoa (nazioa biok osatzen bait dute), elkarrekiko dialektika etengabea ari dira historian. [...] Kontuan hartu beharra bait dago, ez bakarrik ezaugarri nazionalak osorik eta garbi al dauden, baina komunitate nazional batek, historiarekiko eta etorkizunarekiko erreferentzietan, bere burua nola ikusten duen. Situatzen duen. Komunitate nazional hori, nahiz orain deseginda egon, bere historia propiorik eta bere hizkuntzarik bazuen garaiarekin identifikatuz jarraitzen bada, eta berriro hartaratzeko borrokan saiatzen bada, nazio bat da, iraganaldiari eta geroari egiten dizkien erreferentzien arabera; berregin beharrezko nazio bat, noski. Nazio bat, nazio nahia ere bai bait da. (J. Azurmendi 1979: 88-89)

Pentsalari euskaldunaren ideia horiek testuinguru ezin aproposagoa eskaintzen digute identitatearen eraikuntzaz hitz egiteko eta, bide batez, Uxue Alberdiren eleberriarekiko loturak ezartzeko. Azurmendik *Hizkuntza, nazioa, estatua* (2017) lanean, halaxe azaltzen du nola ulertzen duen identitatea eta berori nola eraikitzen den:

Identitatea ez da, begien kolorea bezala edo, genetikoa. Ez dakargu odolean. Kulturala da. Eraiki egiten dugu; inguru familiar eta kulturalarekin eztabaida etengabea eraiki ere, bizialdi osoan, eta geure identitateaz duda-mudan ibili behar izatea izaten da normalena, segurantzia gehiegi gabe geure buruan. [...] Identitate pertsonala bezala kolektiboa (nazionala) jada ez denaz eta oraindik ez denaz osatzen da, hots, libertatearen gain oinarritzen da: izandakoaren memoria eta izatekoaren asmoa, eta bienganako orain dugun eraspina, identitatea hori da. Oroimena eta proiektua gara, eta biak hautatu egiten ditugu, eraiki. Geure buruaren egileak gara. [...] Identitatearen hautua baiespenez eta ukoz zedarrizten da. Deliberazioaz, nahiaz (komunitatearekin hartu-emanen beti). (J. Azurmendi 2017: 79-85)

### ***Jenisjoplin* eta identitatearen (des)eraikuntza**

Azurmendik *Teknikaren meditazioa* lanean dioenaren arabera, historia eta tradizioak inbitazio bat dira meditazio kritiko bat egiteko, arbasoengandik zer hartu dugun eta ondorengoei zer utziko diegun hausnartzeko (J. Azurmendi 1998). Hain zuzen ere, horixe egiten du Uxue Alberdik bere bigarren eleberrian. *Jenisjoplin* eleberriak Euskal Herriaren historiako hiru hamarkada biltzen ditu bere baitan, eta garai aldaketa horiek lotura estua dute protagonistaren ibilbide identitarioarekin. Nagore Vargas 1980ko hamarkadaren hasieran jaiotakoa da, hain zuzen ere, euskal gatazka politikoa pil-pilean dagoen unean; 28 urte dituela, 2010ean, hiesa diagnostikatzen diote, ETAk behin betiko armak utzi baino urtebete lehenago. Gaixotasun horren diagnostikoak inflexio puntu bat dakar protagonistaren bizitzara, ETAk armak utzi izanak Euskal Herriaren historiarentzat bezainbeste.

Euskal Herriak azken urteetan bizi izandako aldaketa politikoak atze-oihalean jarrita, «heroiaren kulturatik zaugarritasunaren kulturara, aurrez aurreko enfrentamenduetatik gerra isiletara, biolentziaren garaitik erruduntasunaren garaira, printzipio sendoen garaitik printzipio likidoen garaira, kaleen garaitik etxeen garaira» egindako ibilbidean murgiltzen gaitu Alberdik (Ugarte 2017). Ibilbide horrek,

ezinbestean, identitate nazionalaren zein subjektu nazionalaren inguruan hausnartzera garamatza; hain zuzen ere, Ibon Egaña literatur ikertzailearen esanetan, azken hamarkadako euskal narratibak sarri ustiatu du identitate nazional hori zalantzan jartzea, birdefinitzea zein eztabaidatzea (Egaña 2012: 67). Horixe egiten du, hain zuzen, Uxue Alberdik eskuartean dugun eleberrian: literaturaz baliatu identitate nazionala zalantzan jarri eta berrasmatzera bidean zenbait hausnarketa plazaratzeko, metaforek eta eufemismoek eskaintzen dizkieten abantailez profitatuz.

Hiesari dagokionez, gai zentrala da eleberrian, eta gaixotasun horren harira protagonistak egiten dituen zenbait hausnarketa lehen irakurketan gaixotasunari erabat lotuta badaude ere, paralelismoak topa ditzakegu gaixoaren identitate krisiaren eta euskal subjektu nazionalaren krisiaren artean. Oso esanguratsua da, esate baterako, diagnostikoak bere bizitzan izan duen eragina nola deskribatzen duen:

Ordura arteko mozorroa erantzarazi zidan diagnostikoak, eta hura gabe ez nekien jendartean egoten. Nire keinuak arrotz zitzaizkidan: ezin nuen irribarrearen neurriarekin eta begiradaren irekitasunarekin asmatu. Ahotsaren modulazioa, bolumena, erritmoa... erabaki gehiegi hartu behar ziren ahoa zabaldu aurretik. [...] Janzten, hitz egiten, egoten ahaztu zitzaidan. Neure burua berrasmatu beharra neukan. (Alberdi 2017: 139)

Hain zuzen ere, Zabalak Alberdiri egindako elkarrizketa batean autoreak aitortzen dio gaixotasun horren berezitasunak aukera eman diola zenbait auzi konplexuren inguruan hausnartu ahal izateko:

‘Kutsatuen’ eta ‘normalen’ arteko elkarbizitza; plazeraren eta erruduntasunaren arteko gatazka; norbere buruari egindako minaren eta besteri eragindakoaren ardura; estigma eta ahultasuna kudeatu beharra; bizi-filosofia bat edo bestea hautatzearen ondorioak... Identitatearen gaia arakatu nahi nuen gorputzari eta sexualitateari lotuta eta perspektiba politiko batetik. (Zabala 2017)

## **Sinboloak eta erritualak auzitan**

Montserrat Guibernau soziologoaren arabera, identitate nazionalaren eraikuntzarako baliatzen diren estrategien artean, sinbolo eta erritualen hedapena dago. Adituaren aburuz, sinbolo eta erritualek, komunitate sentimendua sendotu eta berrestez gain, iraganarekiko harremana mantentzen laguntzen badute ere, beharrezkoa da beren esanahia aldi-aldi egungo testuinguruaren arabera eguneratzea zein berrinterpretatzea, zentzua gal ez dezaten (Guibernau 2017). Halaber, Hutchinonek ideia hori defendatzen du:

Hutchinsonentzat, tradizio nazionalaren kritika eta eguneratzea aldi-aldi gertatzen da nazioetan, batez ere testuinguruak ordura arteko oinarriak zartatu eta ziurgabetasuna zabaltzen denean. Hau da, krisi egoeran komunitatearen ‘gutunari’ buruzko kezak sortzea eta horiei kulturatik erantzuna bilatzea ohikoa da nazioetan. (H. Azurmendi 2019b: 219)

Azurmendik, bere aldetik, artikulu honen bigarren atalean aipatu dugun moduan, bat egiten du ideia horiekin, eta halaxe berresten du *Hizkuntza, nazioa, estatua* lanean:

Identitate pertsonala bezala kolektiboa (nazionala) jada ez denaz eta oraindik ez denaz osatzen da, hots, libertatearen gain oinarritzen da: izandakoaren memoria eta izatekoaren asmoa, eta bienganako orain dugun eraspena, identitatea hori da. Oroimena eta proiektua gara, eta biak hautatu egiten ditugu, eraiki. Geure buruaren egileak gara. [...] Identitatearen hautua baiespenez eta ukoz zedarritzen da. Deliberoaz, nahiaz (komunitatearekin hartu-emanen beti). (J. Azurmendi 2017: 84-85)

Alabaina, *Jenisjoplin* eleberrian ageri diren sinbolo eta erritualak (zein haien kritikak) aztertu aurretik, komeni da Euskal Herriaren gaur egungo egoerari buruz bi hitz esatea, egoera horrek lotura zuzena baitu eleberri horretan planteatzen diren hausnarketekin. XX. mendearen amaieraren ondotik, zalantza nagusitu da; izan ere, politikaren esparruan urteetan zehar defendatutako proiektu antifrankista iraultzaileak zapuztuta gelditu ziren eta, ondorioz, aktibismo politikoaren antolakuntza ereduak zalantzan jartzen hasi ziren (Esteban 2015: 75). Zalantza eta etsipen egoera horretatik sortu dira gaur egun indarrean dauden zenbait irakurketa; Mari Luz Esteban antropologoaren aburuz, lau dira egoera horren atzean dauden faktore nagusiak: Espainiako Estatuak abian jarritako «trantsizio demokratikoaren» porrota, 2008az geroztiko krisi ekonomikoaren eragina, 2011n ETAk armak betiko utzi izana eta intentsitate handiko hamarkadetek ekarritako neke sentsazio orokortua (*ibid.*: 81-82). Aztergai dugun eleberrian, lehenago aipatu dugun moduan, pisu berezia hartzen du ETAREN amaierak eta, hein handi batean, baita neke sentsazio orokortu horrek ere, protagonistaren gorputz gaixoak iradokitzen digunez. Irakurketa berri horiek subjektuaren krisiaz hitz egitera eraman gaituzte, eta politikaren esparruan, zehazki, militantzia eredu berriak aldarrikatzen:

Testuinguru honetan, definizio zein antolakuntza politikorako eredu klasikoen inguruko kezka ikusarazi (eta are, sustatu) da, zenbaitentzat eskema identitario eta praktika jakin batzuk zurruneziak zirela eta [...]. Aldaketa behar hori, batez ere, ekintzaile gazteen artean nabari da, eta azken urteotan estatuaren aldetik aparteko errepresioa jasaten ari badira ere, era berean, hausnarketa eta berrikusketa kolektibo handi batean murgilduta daude, kasu askotan feministen gidaritzapean. (Esteban 2015: 81-82)<sup>2</sup>

Hain zuzen ere, hori da Alberdiren eleberriko protagonistak transmititzen diguna. Emakume gaztea krisi egoeran sartzen da hiesa diagnostikatzen diotenean, eta dagoeneko ez diote balioko borrokarako bereganatu zituen mekanismoek, garai bateko borroka ereduak gaur egungo testuinguruan ez baitio balio:

80ko eta 90eko hamarkadetako krispazio-giroak guztiz egiten zuen bat nire egitura emozionalarekin: justizia-grina, biolentziarako predisposizioa, autoritatearen kontrako jarrera, gainezka egindako amorrua, territorioaren defentsa hil edo bizikoa, arbasoak mendekatzeko premia, ausardiaren gorazarre soziala eta gatazkak zuzenean eta pertsonalki interpelatua sentitzea hain zen naturala nire kasuan, barne- eta kanpo-pultsioen arteko sintoniak normalitate-sentsazio ia etxeak sortzen baitzidan. (Alberdi 2017: 178-179)

Ildo horretatik, Franco Berardi filosofo italiarrak borroka eredu horrekiko haustura 90eko hamarkadaren bueltan zabalduzko utopiekiko etsipen gisa irudikatzen du, eta berregituratze zabal baten beharra identifikatzen du:

Modernitatearen garaiko utopiak [...] utopia bortitzak eta itxaropentsuak izan ziren (hots, azken finean, etsigarriak, damuari eskainiak). Gure indarra dagoeneko ezin da oinarritu gazteen oldarrean, bortizkeria maskulinoan, borrokan, garaipenean edo jabetze biolentean, baizik eta lankidetzaren eta partekatzearen gozamenen. Desioaren eremua berregituratzea, gure itxaropenen hurrenkera aldatzea edo aberastasuna birdefinitzea dira, agian, giza eraldaketarik garrantzitsuenak. (Berardi, *apud* Fernández-Savater 2014)<sup>3</sup>

Nagore Vargas protagonistak bat egiten du eredu bereziki maskulino hori baztertzeko beharrarekin, baina, aldi berean, nekez topatzen du alternatibarik. Eleberrian aurrera egin ahala, noraez horretan zaugarritasunaren alde egiteak bere identitatea berreraikitzen lagunduko dio. Bere lagun Irantzuren bitartez ezagutzen du estreinakoz hertsitzen duen identitateetik libratuko duen bizi-filosofia berria:

- [Irantzu] Teoria berriak ari ditun sortzen: ahultasunaren kultura defendatzen hasi ditun batzuk. Zaugarritasunaren aitortza defendatzen ditun, bai pertsonalki bai kolektiboki; baina, aldi berean, azpimarratzen dituzten gatazkaren kudeaketa, askatasunaren aprendizajea, disidentziarako eskubidea...
- [Nagore] Disidentziarako eskubidea esan dun? Niri ez didazue, ba, aitortzen.
- [Irantzu] Disidentzia estilo heroikoan praktikatu dunalako: etsitzeko edo zalantzarako tarterik gabe, eta beti bakarka, autosufizientzia hutsez. Geure buruarekin mesfidati izatea dun zaugarritasunaren kulturaren ardatzetako bat.
- [...]
- [Irantzu] Zaugarritasunaren kulturaz ari direnek identitate finkoak desegin eta identitate estrategikoak eraikitzeke deia egiten ditun. Jantzi-erantziko identitateak.
- [Nagore] Barruko arropa ondo hautatzea inportantea izango dun.
- [Irantzu] Dударik ez. (Alberdi 2017: 251-252)

Zaugarritasun kontzeptu horren atzean, Mari Luz Esteban antropologoaren oihartzuna entzun dezakegu. Estebanek azpimarratzen du, gaur egun, euskal gizartearen sektore bat behintzat militatzeko modu alternatiboen bila dabilela, eredu tradizional epiko eta maskulinoarekin hausteko asmoz. Antropologoaren aburuz, subjektu politikoa gorputz hauskor eta zaugarritik pentsatu eta birpentsatzeko joera zabaltzen ari da (Esteban 2015: 75).

Sinboloen eta erritualen gaira bueltatuz, aztergai dugun eleberrian, esaterako, ezker abertzaleko euskal nazionalismoaren sinbolo eta erritualak presente daude. Sinboloei dagokienez, kasu honetan azpimarratuko nuke, agertzen diren sinboloak baino, sinbolo horiek barneratzeko prozesua dela interesgarri suertatzen dena, protagonistak esplizituki azaltzen baitu sinbolo horien esanahia apurka bereganatuz joan dela. Jarraian ekarriko dudun pasarteetan, aitortzen du sinbolo horiek arrotz zitzaizkiola nerabezaroan, eta mundu berri hori, identitate berri hori, bere kabuz barneratuz joan zela. Bestela esanda, protagonista identitate nazionalaren eraikuntza prozesuaz mintzo zaigu:

Peruren gurasoek herriko tabernan lan egiten zuten, eta arratsalderen batean hara agertzeko gonbita egin zidan. [...] - Ezagutzen al ditun? -galdetu zidan barraren gaineko argazkiak

seinalatuz. [...] Tabernako dekorazioa arrotza zitzaidan: arrano beltzarekiko bandera horia; izarrak, aizkorak, nor zen ez nekien gazte betaurrekodunaren silueta. [...] Peruk eskuorriak eta artikuluaq pasatzen zizkidan irakur nitzan, eta nire hiztegia zabaltzen eta antolatzen hasi zen berriro. [...] Amnistiaren giltzaren pina oparitu zidan eta unean bertan ezarri nuen paparrean, aitak oparitutako Mili KK txapa antimilitaristaren eta han-hemendik jiraturiko Egizaneakoaren, Nuklearrik ez!-ekoaren eta Che Guevararen ondoan. Zenbait arratsaldetan, nire kabuz liburutegira joaten nintzen marxismoaz, ETArek historiak eta Euskal Herriko zein mundu zabaleko iraultzez, bibote eta bizardun liderren bizitzaz irakurtzera. [...] Peruren ahotik ezagutu nuen Jarrai. Militantzia, herria, borroka armatua, iraultza, sozialismoa, gerra zikina, sasia, ekintzak, preso politikoak, gutarrak, vis a visak... (Alberdi 2017: 110-111)

Esan bezala, pasarte horretan barneratze prozesu horren berri ematen digu protagonistak, eta, egiten duen deskribapenean sinboloen esanahiaren eguneratzea baino, identitatearen eraikuntza prozesua agerian uzten duela azpimarratuko nuke. Era berean, protagonistak eraikuntza prozesu hori agerian uzteak bidea irekiko dio bere identitatea deseraikitze behar bat planteatu eta berrasmatze bat aldarrikatzeko.

Ildo beretik, eleberrian ageri diren erritualen artean, nabarmentzekoa da manifestazioen amaieran *Eusko gudariak* abestearen inguruan protagonistak egiten duen deklarazio labur bezain gordina. Nagore Vargasek, hurrengo esaldiarekin, kolokan jartzen du manifestazioen amaieran gaur egun Eusko Gudarostearen ereserkia izan zena kantatzen jarraitzearen zentzua: «Manifestazioen amaieran *Eusko gudariak gara* kantatzeak sorturiko erridikulu-sentsazio errepikaria» (Alberdi 2017: 178). Euskal nazionalismoaren urte loriatsuen hondarretan sortu zen abestia izanagatik ere, ezin ukatuzkoa da gaur egun arte iraun duen tradizio bihurtu dela *Eusko gudariak* abestea, batez ere ezker abertzalearen baitan. Hala ere, eleberri honetan ziurrenik esaldi horretan dago deseraikuntza-berreraikuntza prozesu bat aldarrikatzeko egiten den deirik esplizituenetarikoa.

Atal honekin amaitzeko, bertsolaritzari buruzko pasarteak hartuko ditut hizpide. Eleberrian bertsolariak eta Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala ageri dira; lehenak euskal kulturako sinbolo garrantzitsu gisa identifika ditzakegu, eta bigarren ekitaldia, berriz, euskal kulturako erritual nagusietariko bat, nagusia ez bada. Protagonista ospitalizatuta dagoen bitartean jokutzen da 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, eta, bere lagun Irantzu bisitan doakionean, elkarrekin komentatzen dute zer moduz joan den. Hona hemen bi pertsonaien arteko elkarrizketa:

- [Nagore] Nork irabazi du?
- [Irantzu] Ametsek.
- [Nagore] Ondo egon da?
- [Irantzu] Itzel. Erromak heroiak maite ditin.
- [...]
- [Nagore] Ni ere finalari begira egon nindunan. Heroiei buruzko zerbait esan hidan gauean.
- [...]
- [Irantzu] Oraindik kultura epikora kakotuta gauden. Guardia zibilak, presoak, Sarri, ama totala... Geure heroiak eta bilauak behar ditinagu. 'Aro berrian' ere epikaren inertzia hor zagon. Maialenekin deskolokatu xamar egon nindunan: hozka egiteko grina falta zuela iruditu zitzaidanan hasieran, amorrua eskas, baina, hain zuzen, aipatutako epika horretatik ihesi ez ote zebilen... Ez zitinan gaiak gertaera heroikoak balira bezala aboratu, txikitik aritu zunan. Baina hori dun joera oro har, ezta? Ez bertsolarietan bakarrik. Interesgarria dun epikaren kulturarena: hamarkada

batean ikuspegi belizista nola diluitu den. [...] Arbuiatu ditinagu ikuspegi erromantikoa eta gerrazalea, baina besterik eraikitzea kostatzen ari zaigun... (Alberdi 2017: 247-250)

Elkarrizketa horretan presente daude, besteak beste, epikaren ideia, zaurgarritasunarena, «txikitik aritzea», sinbolo tradizionalakiko zalantza eta identitatea berreraikitze beharra. Testuinguru honetan, ezinbestekoa da aipatzea bertsoaritzaren esparrua feminismitik berreraikitze egiten ari diren lana, hain zuzen horren isla ikus baitaiteke pasarte horretan. «Oraindik kultura epikora kakotuta gauden» eta «besterik eraikitzea kostatzen ari zaigun» esaldiek, adibidez, orain arteko molde tradizionalak sortzen duten deserosotasuna salatzen dute. Lehenago aipatu dugu kulturgileek identitate nazionalaren eraikuntzan duten papera, sinboloei eta erritualei esanahia gaurkotzeko duten eskumena. Hain zuzen ere, horixe egiten ari dira bertsoaritzan, eta horren adibide dira, besteak beste, Uxue Alberdik berak idatzi duen *Kontrako ezta* saiakera (Susa, 2019), han eta hemengo hautsak harrotu dituena, Miren Artetxek eta Ane Labakak argitaratu duten *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen* liburua (UEU, 2019), Ahalduntze Bertso Eskola eta *Ez da kasualitatea* bertso-saioak.

## Ondorioak

Uxue Alberdiren eleberritik eratorri ditugun hausnarketek autoreak sortu duen pertsonaiaren identitatearen deseraikuntza prozesuaren berri ematen badigute ere, Azurmendiren gogoeta teorikoek eleberriko hausnarketak modu zabalago batean ulertzera garamatzate.

Laburbilduz, eleberrian bi ibilbide garatzen dira modu paraleloan, pertsonaia nagusiaren identitate pertsonala eta euskal subjektuaren ibilbide identitarioa. Protagonistaren kasuan, bere ibilbide horretan inflexio puntua hiesaren diagnostikoa izango da; euskal subjektu garaikidearen kasuan, berriz, ETAk armak behin betiko uztea. Funtsean, *Jenisjoplin* euskal subjektu politikoari eta berori sostengatzen duten elementu kulturei egindako kritika bat dela ondoriozta dezakegu, eredu epiko maskulino tradizionalari kritika, hain zuzen, eta berori berreraikitze beharraren aldarrikapena:

Gure mundua banatzen zuen ardatzetako bat desagertu berria zen. Ezinbestean lerratzeak edo bestek lerratua izateak zekartzan tentsioa eta segurtasuna bukatu ziren. Listua irenstea. Etsaitasunaren adrenalina. Taldetasunaren sehaska. Ezta, GORA ETA isilduek oihukurikoen adinako marranta sortzen zidaten. Sufrimenduaren kontzientzia zabala, luzea eta poliedrikoa zen. Identitateen berreraikuntzaren garaia hasi zen arratsaldeko 19:00etan. (Alberdi 2017: 176-179)

## Oharrak

1. Artikulu honen egileak Eusko Jaurlaritzaren 'Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako laguntza' jasotzen du.
2. Jatorrizko pasarte gaztelaniaz dago. Itzulpena artikuluaurearen autorearena da.
3. Jatorrizko pasarte gaztelaniaz dago. Itzulpena artikuluaurearen autorearena da.



## Bibliografia

- Alberdi, Uxue (2017): *Jenisjoplin*, Zarautz, Susa.
- Azurmendi, Haritz (2019a): *Joxe Azurmendiren nazioa Nazionalismo Ikerketen argitan. Abertzaletasun kulturalaren defentsa Euskal Herri garaikidean*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- (2019b): 'Joxe Azurmendiren abertzaletasun kulturala', *JAKIN* 233-234, 215-237.
- Azurmendi, Joxe (1979): *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Donostia, Hordago.
- (1992): *Espainolak eta euskaldunak*, Donostia, Elkar.
- (1998): *Teknikaren meditazioa*, Donostia, Kutxa Fundazioa.
- (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Donostia, Elkar.
- Fernández-Savater, Amador (2014): 'Bifo: «Una sublevación colectiva es antes que nada un fenómeno físico, afectivo, erótico»', *eldiario.es*, 2014-10-31 ([www.eldiario.es/interferencias/bifo-sublevacion-afectos\\_6\\_319578060.html](http://www.eldiario.es/interferencias/bifo-sublevacion-afectos_6_319578060.html); 2020ko otsailean kontsultatua).
- Egaña, Ibon (2012): 'Begiradak gatazkaren gainean', in Jon Kortazar eta Amaia Serrano (koordk.): *Gatazken lorratzak*, Donostia, Utriusque Vasconiae, 65-92.
- Esteban, Mari Luz (2015): 'La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable', *Ankulegi* 19, 75-93.
- Guibernau, Montserrat (2017): *Identidad. Pertenencia, solidaridad y libertad en las sociedades modernas*, Madril, Trotta.
- Ugarte, Itziar (2017): 'Larrutuaren azalberritzea', *Berria*, 2017-10-07 ([www.berria.eus/paperekoa/1757/024/001/2017-10-07/larrutuaren\\_azalberritzea.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1757/024/001/2017-10-07/larrutuaren_azalberritzea.htm); 2020ko otsailean kontsultatua).
- Zabala, Juan Luis (2017): 'Uxue Alberdi: «Jende gutxirekin konpartitutako ideiak garatzeko aukera eman dit fikzioaren distantziak»', *Postdata*, 2017-11-22 (<https://postdata.elkar.eus/uxue-alberdi-jenisjoplin>; 2020ko otsailean kontsultatua).

**JAKIN**  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
943 21 80 92  
[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)  
[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)